

**URAREN EUSKAL AGENTZIAren adierazpen instituzionala, iruzurraren aurkako borrokari buruz, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa izeneko funtsekin finantzatutako ekimenak gauzatzeko esparruan.**

Uraren Euskal Agentzia, *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana* betearazteko zereginak dituen entitatea da.

Eta jasota gera dadin, adierazten du ezen Eusko Jaurlaritzak arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekin duen konpromisoa eta bere jarduketetan baliatu ohi dituen integritate, objektibotasun eta zintzotasun printzipio zorrotzekiko atxikimendua hedatzen dela, orobat, Europako SEM mekanismoko funtsekin finantzatuta egiten dituen jarduketetara, ezin baita bestela izan.

Haren zerbitzura dauden langileek, enplegatu publiko diren aldetik, betebeharrak hauek dituzte, besteak beste: *«interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, erdugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua»* (5/2015 Legea, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatu-tuarena, 52. artikulua).

Horrez gain, erakunde osoa gidatzeko ardura duten kargu publikodunek atxikimendu adierazpen bat egiten dute, alegia: *«Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta haren sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodea»* (Gobernu Kontseiluak 2016ko azaroaren 22an egindako bileran onartua). Adierazpen horrek, legez ezarrita dituzten konpromiso eta balioez gain funtzionario eta lan-kontratuko langileek duten erantzukizunarekin zuzenean lotuta dauden konpromisoak gehitzen dizkie. Kodea ez da asmo-adierazpen huts bat, benetako ondorioz ez duena, bai izk eta kodea urratuz gero, barneko jarraipen-sistema bat aktibatzen da, eta horrek ekar dezake langilea kargugabetzea edo, beharrezkoa bada, organo eskudunei zenbait gomendio gitea, gertatutako okerrak zuzen daitezten.

Nolanahi ere, helburua da erakundearen barruan iruzurra gaitzetsiko duen kultura bat sustatzea, aurrea hartuko diona eta detektatzen lagunduko duena, iruzur-kasuak kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatzea sustatuz.


Uraren Euskal Agentziak, bere jarduerari dagokionez Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazi behar duen erakunde instrumental gisa, bat egiten du Jaurlaritzak definitu duen neurrien planarekin, alor hauetako betekizunei erantzuteko: iruzurraren aurkako eskakizunak, interes-gatazka, finantzaketa bikoitza, estatu-laguntzak eta ingurumenari kalte garrantzitsurik ez eragitea. Hori guztia ezinbesteko baldintza da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazteko. Plan hori Suspertze eta Erresilientzia Me-

kanismoaren Informazio eta Jarraipenerako Sailarteko Batzordeak aurkeztu baitu Gobernu Kontseiluan, eta 2022ko martxoaren 29ko bilkuran onartzen du plan hori, adierazpen instituzional honekin batera.

Lehendik dauden esperientzia eta mekanismoak ahalik eta gehien baliatzen dituen plan horretan, iruzur-arriskua ebaluatzeko eta prebenitzeko prozesuak ezartzen dira, bai eta kasuan kasuko erantzukizun-arloetan barne- kontrolerako sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak behar bezala inplementatzeko prozesuak ere.

Era berean, beharrezkoak diren administrazio-baliabideak ezartzen ditu neurri planak, hauteman daitezkeen irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatzeke, konfidentzialtasuna errespetatuz eta gai hori erregulatzen duten araei jarraituz, barneko jakinarazpen-kanalen bitartez eta betiere lankidetzan agintaritza arduradunarekin, kontrol-agintaritzarekin, Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzuraren aurkako Europako Bulegoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 29an



Stua.: Antonio Aiz Salazar

Zuzendari nagusia